

opusdei.org

Opus Dei hasi da Errusian

Alex Havard Euskalherrrian
egon da

2007 Api 16

Argazki hauen artean, 25 urte igaro dira. Eta, orduan, mota honetako abentura batean sartzea inoiz pentsatu ez bazuen ere, Alexek beti izan du ilusio handia Errusian bizi izateko.

Haren ama, Georgiakoa da, aita, errusiarra. Zuzenbidea ikasi zuen Parisen, eta han ezagutu zuen Opus

Dei. Estrasburgon urte batzutan
lanean arituz gero, Helsinkira joan
zen, Obraren zereginetan bertan
jarduteko. Aditua lidergoan. Eskolak
ematen ditu Finlandian. Haren
zereginengatik etorri izan da
Euskadira: Europa-Errusia
harremanei buruzko mahai-inguru
bat Gasteizen. Maitemindua dago
Errusiagan. Orain, ilusioz beterik
dago, oinarriak dituenetara itzuli
baita.

Noizko aurrez ikusi da Obraren hasiera Errusian?

Egia esan, urteak dira jadanik hilean
behin San Petersburgora goazela
Helsinkitik baina, orain, garaia iritsi
da Moskura jauzia egin eta, horren
bidez, Obrak egin dezan zereginari
izaera egonkorra emateko. Uda
honetan bertara joatea espero dugu.
Bost lagun joango gara, euren artean
Darius, Opus Deiko lehen lituaniarra.

Zerk ematen dio Opus Deik Errusiari?

Opus Deiren mezua mundu osorakoa denez gero, planetako edozein puntutako pertsona guztientzat balio du. San Josemariak esaten zuen, Opus Deiren jarduna herrialde batean hasterakoan, beti joaten zela ikastera bertara. Nire iritziz, herrialde horretara joateko zoria dugunok, funtsean, ikastera goaz errusiar herriaren ezaugarri diren hiru bertuteak: eskuzabaltasuna, apaltasuna eta bihotzak beti irekiak izatea.

Eta zer irakas dezake?

Mendebaldeko Europa, ekialdekoa baino arrazionalago eta logikoagoa da. Errusian den pentsamoldea intuiziozkoagoa da, kontenplariagoa. Obraren Fundatzaileak, “kristau bizitza gauzatzeaz” hitz egiten zuen. Opus Deik bai irakas dezakeela ohiko

bizitza santutasun-bidean jartzen, berez gaindikoa lanarekin, familiako bizitzarekin, bizitza sozialarekin e.a.ekin uztartzen, hau da, ohikoa denean Jainkoa aurkitzen.

Harrigarria bada ere, mezu horretako zerbait antzeman egin zuten XX. mendeko Soloviev Vladimir, Serguei Bulgakov edo Bergaer Nikolai moduko errusiar filosofo ospetsuek, baina ezin izan zuten garatu Iraultza gertatu zelako.

Nola ikusten duzu Errusia 50 urte barru?

Benedikto XVI.a udaberri kristau batez mintzatzen da. Errusiar kristauek itxaropide handiak dituzte, batik bat, erregimen marxistako 70 urteetan egon izan diren martiri ugariengatik. Uste dute oinaze guzti horrek fruitua izan behar duela eta gogozko indar berri bat jaioko dela, ondorio emankorrak izango dituen mundu osoan zehar.

.....

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/opus-dei-hasi-da-errusian/](https://opusdei.org/eu-es/article/opus-dei-hasi-da-errusian/)
(2026 Mar 11)